



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko martxoaren 28a

31. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio-ko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontua murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Erriberriko eskualdean Garapen Sozioekonomikoko Plana ezartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, kontabilitate nazionalari buruzko arauak 2011ko eta 2012ko kontuetan aplikatzeak izanen duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Volkswageneko prestakuntza zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko abiadura handiko trenera zenbat diru bideratzeko asmoa dagoen 2011, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, zenbait herritako festetako txupinazoei buruzko txostenak egiten erabilitako baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Enplegu Planarekin lotutako baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Iberdrolaren akzioak saltzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Audenasari 2011n ordainduko zaion diru kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Moderna Planarekin lotuta eginiko gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko martxoaren 7an hartutako erabakiaren bidez, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Kontuan izanik azken xedapenetako lehena eta xedapen iragankor bakarra onesteko gehiengo osoa behar dela, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzea proposatzen dutelako, eta kontuan izanik, halaber, Erregelamenduko 152.3 artikuluan ezarritakoa, bidezkoa da Nafarroako Gobernuak igorritako proiektutik bereiztea aipatu Foru Legeari dagokion edukia, eta bateraezintasunei buruzko Foru Legea aldatzeari buruzko proiektu baten gisara izapidetzea.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127., 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea, Erregelamenduko 152. eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta **2012ko apirilaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkitote proiektuari.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Nafarroako Parlamentuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen proiektua tramitatu behar du. Foru lege proiektu horren azken xedapenetako lehenaren bidez, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen da, eta xedapen iragankor bakarrean ere aldaketa horren aipamena egiten da. Xedapen horien edukia proiektu hartatik atera eta foru lege proiektu honetara ekarri da, izan ere, 19/1996 Foru Legea aldatu ahal izateko, haren zioen azalpenean adierazi bezala, Nafarroako Parlamentuko kideen gehiengo osoak onestea eskatzen da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 25. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Artikulu bakarrean jasotzen dira 19/1996 Legearen artikuluetan egin beharreko aldaketak, Gar-

dentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Legean ezarritako irizpide berrietara egokitzeko asmoz (publizitatea, gardentasuna eta mugak ordainsariak, diru-sarrerak edo dietak eta kargu-uzte pentsioak kobratzeko orduan). Eta xedapen iragankor bakarrean gaur egun goi kargu ohi direnen araubideari eustea aurreikusten da.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen aldaketa.

Ondotik adierazten diren foru lege horren aginduak era honetan aldatzen dira:

Bat. 2. artikulua 1. idatz-zatia honela idatzita geldituko da:

“1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek dira goi karguak:

a) Nafarroako Gobernuo lehendakaria eta kontseilariak.

b) Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuo kontseilarien kabineteetako kideak, administrazio-kontratudun langileak izan ezik.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-oko zuzendari nagusiak.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde autonomoetako zuzendari kudeatzaileak.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-oko eta haren erakunde autonomoetako sozietate publikoetako zuzendari kudeatzaileak eta horien parekoak direnak.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-oko eta haren erakunde autonomoetako fundazio publikoetako zuzendariak eta horien parekoak direnak, kargu horietan aritzeagatik aldizkako ordainsari finkoak jasotzen badituzte.”

Bj. 3. bis artikulua 2., 3. eta 4. idatz zatiak honela idatzita geldituko dira:

“2. Kargua utzi eta biharamunean, Nafarroako Gobernuo kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusiek eta haren menpeko erakunde autonomoetako zuzendari kudeatzaileek eskubidea izanen dute hilabetero prestazio ekonomiko bat jasotzeko, hain zuzen, kargua uzten dutenean jasotzen ari ziren urteko guztirako ordainsarien %80ren hamabiren bat. Karguan egondako denbora zenbat izan den, horren erdian jasotzen ahalko dute prestazio hori, eta gehenez ere, 24 hilekotan.

Prestazioa sorrarazten den bitartean, ez bada bidezkoa interesdunari bere aurreikuspen sozialeko sisteman alta ematea, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin hitzarmen berezi bat sinatzen ahalko du, eta horren ondoriozko kotizazioak itzultzeko eskubidea izanen du.

3. Aurreko idatz-zatian araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:

a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatik ordainsariekin, sektore publikokoak izan, edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etorritako diru-sarrerak.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatik dietak.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseiluetara joateagatik dietak.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariak.

Ordainsari, erretiro-sari edo diru-sarrera horiek, urteko guztiak kontatuta, baxuagoak badira aurreko idatz-zatian adierazitako prestazio ekonomikoa baino, eskubidea izanen dute bien arteko aldea jasotzeko, bakarrik.

4. Administrazio publiko batean edo horien menpeko erakunde autonomo batean lanpostu bat erreserbatuak duten enplegatu publikoek ez dute aurreko idatz-zatietan ezarritako prestazio ekonomikoa inolaz ere jasoko.”

Hiru. 3. bis artikulua idatz-zati bat gehitzen zaio:

“6. Nafarroako Gobernuo kide ohiek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusi ohiek eta haren menpeko erakunde autonomoetako zuzendari nagusi ohiek, artikulu honen 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den bezala.”

Lau. 5. artikulua 1. idatz-zatiko b) letra kentzen da.

Bost. 6. artikulua idatz-zati bat gehitzen zaio:

“d) Irakaslan unibertsitateko zentroetan, betiere lanaldi partzialean egiten baldin bada, denbora jakin baterako, eta kargu publikoan aritzeari kalte egiten ez badio.”

Sei. 9. artikulua honela idatzita geldituko da:

“9. artikulua. Erregistroko atalen eta haietan agertzen diren datuen publikotasuna.

1. Jardueren Erregistroa publikoa da, eta hango informazioa eskuratzeko araubidea foru lege honetan, oinarritzko legedian eta horiek garatzeko onesten diren arauetan xedatuta dago.

2. Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroa erreserbatua da, eta hango informazioa eskuratzeko ahalko dute, interesdunaz gainera, honako organo hauek:

a) Nafarroako Parlamentuak, haren erregelamenduak ezartzen duenari jarraikiz, eta Comptos Ganberak, hura arautzeko foru legeak ezartzen duenari jarraikiz.

b) Organo judizialek, erregistroko datuak jakitea behar duten prozesuak instruitu edo ebazteko, prozesuei buruzko legeetan xedatutakoari jarraikiz.

c) Fiskaltzak, bere eginkizunetan ari dela, erregistroko datuak jakitea eskatzen duten ikerketa lanak egiteko.

3. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernuak kideek eta Administrazio Publikoko goi-kargudunek, bateragarriak diren jardueretan aritzeagatik, jasotzen dituzten ordainsariei eta bestelako dirukopuruei buruzko erregistro datuak, eta agintaldiaren edo kargu publikoko aldiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare ondasun eta eskubideei buruzkoak Nafarroako Gobernuak

Interneten duen Atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan. Horren ondorioetarako, ondare ondasun eta eskubideei buruzko datuak argitaratuko dira haien balioaren berri emateko, baina kokapena saihestuko da eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna begiratuko dira.”

**Xedapen iragankor bakarra.** Gaur egun goi kargudun ohi direnen araubidea.

Foru lege honen bidez azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari, hots, Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzkoari, egindako aldaketak ez zaizkie aplikatuko gaur egun goi kargu ohi direnei, egoera horretara iritsi zirenean unean indarra zuen araudiaren pean segituko baitute.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehena.** Arau-garapena

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabetera hartuko du indarra.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontua murrizteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Juan Carlos Longás García jaunak galdera egin du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontua murrizteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás jaunak idatzizko galdera egin du NUPerako aurrekontu-esleipenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (8-11/PES-00171). Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

1. Gastuen murrizketaren ondorioz, NUPerako aurrekontu-esleipena hasiera batean ezarritakoa baino 4 milioi euro txikiagoa izanen da.

2. Ez da beharrezkoa kontuan hartzea bigarren galderaren bigarren zatiko galdera; izan ere, NUPen 2011rako finantzaketa arautzen duen hitzarmen indardunaren lehen xedapen gehigarriak aurreikusten duen moduan, diruzaintzako garrinak daudenez, aipatu hitzarmenaren jarraipenerako batzordearen bilkura deitu da –batzorde horretako kide dira Ekonomia Departamentuko ordezkariak, Hezkuntza Departamentukoak eta NUPekoak–, eta batzorde horrek erabaki du 2011rako ekarpena murriztea, aplikatzekoa baita aipatu xedapen gehigarrian aurreikusitakoa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, jakiteko zein den “Erriberriko eskualdean Garapen Sozioekonomikoko Plana ezartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Erriberriko eskualdean Garapen Sozioekonomikoko Plana ezartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Garapen Sozioekonomikoko Plana ezarri eta betetzea-Hitzarmena Erriberriko

Udalarekin” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradua, maila eta zenbatekoari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Lehendakariak, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

Erriberriko Udalari kultur eta gizarte arloko dinamizazio plan bat egiteko dirulaguntza eman zitzaion 2010ean. Hasiera batean baimendutako kopurua 140.000 eurokoa izan zen, eta eman zen dirulaguntza, 105.000 eurokoa. Amaieran ordaindutako kopurua, berriz, 91.450 eurokoa izan zen. 2011n, aurrekontuen foru legean 30.000 euroko dirulaguntza aurreikusi zen, baina kontusail hori blokeatu egin da, ekitaldiko defizita murrizteko hartu diren gastu-kontrolerako neurrien ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Lehendakariak, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

## **Galdera, kontabilitate nazionalari buruzko arauak 2011ko eta 2012ko kontuetan aplikatzeak izanen duen eraginari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du kontabilitate nazionalari buruzko arauak 2011ko eta 2012ko kontuetan aplikatzeak izanen duen eraginari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, Kontabilitate Nazionalaren arauen aplikazioak Nafarroako Gobernuaren kontuetan duen eraginari buruz (PES-000167). Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontabilitate Nazionalaren arauak –edo, hobeto esanda, Europako Kontu Nazional eta Erregionalen Sistema– dira erabili beharrekoak aurrekontu arloko egonkortasunari buruzko helbu-

ruaren betetze-gradua zehazteko, abenduaren 28ko 2/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Aurrekontu egonkortasunari buruzko Legearen 3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Arau horien ondorioz, aipatu faktoreen eraginarenean aurreikuspena honakoa da:

– Pirinioetako autobia: Estatuak uste du gastu gisa konputatu behar dela emakidaren hartzaileak eginiko inbertsioa. Horren ondorioz, 2011rako 100 milioi euroko doikuntza negatiboa aurreikusten da. Eta, kalkuluen arabera, 2012rako 30 milioi euroko doikuntza negatiboa espero da.

– Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietako azpiegiturak: gastu gisa konputatu behar da emakidaren hartzaileak eginiko inbertsioa. 2011rako, 20,16 milioi euroko doikuntza negatiboa aurreikusten da. Azpiegitura hori amaituta dagoenez, ez du eraginik izanen hurrengo ekitaldietan.

– Abiadura Handiko Trenaren lanak: lanak Nafarroako aurrekontu orokorrekin finantzatu badira ere, Estatuarekin sinatutako hitzarmenean aurreikusten da eginiko inbertsioa Administrazio Zentralari egotziko zaiola; horrenbestez, 2011rako 45 milioi euroko doikuntza positiboa aurreikusi zen. Une hauetan, aurreikusten da 2011ko itxieran 4,17 milioi euro beteko direla. 2012an, berriz, 134 milioi euroko doikuntza positiboa aurreikusten da, egin beharreko inbertsioaren aurreikuspenean oinarrituta.

– Diru-bilketa ez ziarra: likidaturiko tributu-eskubideen eta egiaz bildutako zenbatekoaren arteko aldea da, kontabilitate nazionalaren arauak aplikatuta, “dirubilketa ez-ziurra” deiturikoa. Soilik tributu izaerako diru-sarrerei eta kotizazio sozialei eragiten die. Egonkortasunari buruzko helburuaren betetze-gradua zehazteko, kalkulatu da 22 milioi euroko doikuntza negatiboa egin beharko dela 2011rako, eta 40 milioi euroko doikuntza negatiboa 2012rako.

Esan behar da aipatu kontusailez gain badirela beste doikuntza negatibo batzuk, 52 milioi eurokoak 2011rako eta 17 milioi eurokoak 2012rako.

2.- Esan bezala, irizpide aldaketa kontabilitate-sistema desberdinak erabiltzetik dator: aurrekontu-kontabilitatea Foru Komunitateko Administrazio organoek zuzenean kudeatzen dituzten dirusarreen eta gastuen fluxuei buruzkoa da, eta, aldiz, kontabilitate nazionalen garrantzi handiagoa ematen zaio ondasunen jabetza ekonomikoari, erregistroko titulartasunari baino. Hala, Pirinioetako autobia eta Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrien kasuan, interpretatu da ondasun horiek Foru Komunitateko Administrazioaren balantzean sartu behar direla, eta ez jasotzen dituzten enpresa emakida-hartzaileenean. Aldiz, Abiadura Handiko Trenaren kasuan, kontabilitateko irizpide berberren aplikazioaren eraginez, Foru Komunitateko Administrazioak gastuen aurrekontua betetze aldean inbertsioa Estatu Administrazioari egotzi behar zaio, eta horregatik sortzen da doikuntza positiboa. “Dirubilketa ez-ziurra” dagokionez, sortzapen-printzipioaren aplikazioaren ondorioz, dirusarrerak eskubideen likidazioarekin batera kontabilizatu behar dira, baina, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2000ko azaroaren 7an emandako 2516/2000 (EE) Erregelamenduaren aplikazioaren ondorioz, sortutako zenbatekoak zuzendu eta dirubilketa ez-ziurrekoak diren guztiak ezabatu behar dira.

3.- Donejakue Bideko autobia, itzaleko bidesariaren formularen egin bada ere, ez da kontabilitate nazionalen doikuntza negatiboetan bateratu.

Donejakue Bideko autobiatatik ordaintzen den kanona gastu gisa agertzen da Sustapen eta Etxebizitzako Departamentuari dagokion aurrekontu-kontusailean, eta ez da aldaketarik aurreikusten hurrengo ekitaldietarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## Galdera, Nafarroako Volkswageneko prestakuntza zentroari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du Nafarroako Volkswageneko prestakuntza zentroari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du Nafarroako Volkswageneko prestakuntza zentroari buruz (8-11-/PES-000169). Hona hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo galderari dagokionez: Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarik eman al dio Nafarroako Volkswageneko prestakuntza zentroari? Zenbatekoa?

Une honetan, Volkswagen ez da hartzen prestakuntza zentro homologatutzat. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundu du 2011n "Lingua Empresa" izeneko programa, zeinaren xedea baita diagnosi bat egitea hizkuntzen alorrean dauden prestakuntza-beharrizanak detektatu eta prestakuntza plan bat garatzea interesa duten Nafarroako enpresetan. Dirulaguntza eskatu duten 9 enpresetako bat da Volkswagen, eta emandako dirulaguntza 4.278,00 eurokoa izan da.

Bigarren galderari dagokionez: Zer egiteko asmoa du Nafarroako Volkswageneko prestakuntzaren arloan?

Volkswageneko dirulaguntza eskatu du arestian aipatu programarako, baina ez Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2011n diruz lagundu dituen gainetako prestakuntza planetarako. Horri dagokionez, esan behar da enpresak erabat autonomoak direla haien prestakuntza planak diseinatzeke.

Hirugarren galderari dagokionez: Krisiari aurre egiteko neurrien artean ba al da beste enpresa batzuen barne prestakuntzarako dirulaguntzarik?

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak prestakuntza modalitate desberdinetarako dirulaguntzak eman

ditu 2011n: eskaintza-prestakuntzarako eta eskaera-prestakuntzarako. Enpresa ingurune eskaera-prestakuntzaren barruan, zenbait programatarako dirulaguntzak eman dira:

- Enpresa txiki eta ertainetarako prestakuntza planak: 39 enpresa. 113 prestakuntza-ekintza. Aurrekontuan 200.000 euro jartzeko baimena eman zen, eta, beharrezkoak ziren baremazioak egin ondoren, 199.990,88 euro eman ziren.

- Enplegu Konpromisodun Prestakuntza: 4 enpresa, 5 prestakuntza-ekintza. 169.625 euro eman dira. Programazioa oraindik ez da amaitu.

- Lingua Empresa programa: hizkuntzen arloko prestakuntza planak garatzeko diagnosis. Bederratzitzi diagnostarako dirulaguntzak eman dira; guztira, 21.114 euro.

- Horretaz gain, nabarmentzekoa da, baita ere, Zuzendarien Prestakuntza, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekiko hitzarmen baten bidez kudeatzen dena. 766.220 euroko aurrekontu-aurreikuspena baimendu da. Espedientea irekita dago eta urtea amaitutakoan izanen ditugu balantzea eta jardueren oroitidazkia.

Laugarren eta azken galderari dagokionez: Enpresa horiek eskaintzen duten prestakuntza barne igoerara zuzenduta dago ala Lanbide Heziketako edozein tituludunek har dezake parte?

Eskaeraren araberrako prestakuntza eskatzen dute enpresek beren prestakuntza beharrianei erantzuteke.

Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisisistema arautzen duen martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuan ezartzen den moduan, enpresen prestakuntza-ekintzen bidez eskaintzen den prestakuntzak zerikusia izanen du enpresaren jarduerarekin, eta orokorra edo berariazkoa izan ahalko da.

Prestakuntza orokorreko irakaskuntzak ez zaizkio bakarrik edo nagusiki aplikagarriak enpresa onuraduneko langilearen egungo edo etorkizuneko lanpostuari, baizik eta gehienbat beste enpresa edo lan-esparru batzuetara transferi daitezkeen kualifikazioak ematen ditu.

Berariazko prestakuntzak hartzen du irakaskuntza teorikoa eta/edo praktikoa, enpresa onuraduneko langilearen egungo edo etorkizuneko lanpostuarekin zerikusia duena, eta ematen dituen kualifikazioak ezin daitezke transferitu beste



enpresa edo lan-esparru batzuetara, edo transferi ahal badira, oso modu murriztuan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, jakiteko abiadura handiko trenera zenbat diru bideratzeko asmoa dagoen 2011, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko abiadura handiko trenera zenbat diru bideratzeko asmoa dagoen 2011, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer zenbateko aurreikusi duen bidera-

tzea, zertara eta abiadura handiko trenara eraikitze-ko dirua aurreratzeak 2001eko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietan eragindako interesak ordaintzera (PES-000174). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea Nafarroan eraikitzekeko Estatuko Administrazio Orokorren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ADIF-Trenbide-azpiegiturak Administrazio Entze Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren 1. eranskinari jarraikiz, Zaragoza-Iruña abiadura handiko lineako Nafarroako zatia egiteko beharrezkoak diren fluxu finantzario negatiboak (baliabideen irteera) eta positiboak (diru-itzulketak) dira ondoko taulan agertzen direnak. Bertan agertzen dira, halaber, galderan aipatu datara arte urtero metaturiko zorpetzea eta zorpetzearen ondorioz sorturiko urteko interesak. Interes horiek kalkulatzeko % 5eko interes tasa hartu da kontuan.

Urtea	Nafarroako Gobernuaren karguak	Nafarroako Gobernuaren ordainketak	Metaturiko zorpetzea	Interesak
2011	-43,25		-43,25	0,00
2012	-134,00		-177,25	2,16
2013	-139,05	10,00	-306,30	-8,86
2014	-71,35	25,65	-352,00	-15,32
Guztira				26,34

Zenbatekoa (euroak, milioitan)

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, zenbait herritako festetako txupinazoei buruzko txostenak egiten erabilitako baliabideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du zenbait herritako festetako txupinazoei buruzko txostenak egiten erabilitako baliabideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, zenbait herritako festetako txupinazoei buruzko txostenak egiten erabilitako baliabideei buruz (8-11/PES-00179). Hona Nafarroako Gobernuako Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

Poliziaren lanak berekin dakartza zenbait jarduketa, alde aurretik planifikatu ezin direnak eta jardunean sortzen direnak. Polizia zerbitzu bat ezartzen denean, ez da ziur jakiten zer gertatuko den zerbitzu hori ematen den bitartean; hori dela eta, zaila da, ezinezkoa ez bada, zehaztea noiz izanen den beharrezkoa txosten bat, polizia ikerketa bat edo lagin-bilketa bat egitea.

Hori guztia, esan dudan moduan, edozein motatako eta tokitako polizia-jardueraren barruan sartzen da, eta jarduera horren ondorioz gastu batzuk sortu ohi dira –diru-gastuak, giza baliabideetakoak eta gastu teknikoak–. Gastu horiek modu generikoan aurreikusten dira Foruzaingoaren urteko aurrekontuan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an.

Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

## **Galdera, Enplegu Planarekin lotutako baliabideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Enplegu Planarekin lotutako baliabideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako langabeziarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (8-11/PES-00180). Hona

hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- 2007tik gaur arte, zenbat diru baliatu da Enplegu Plana dela eta?

Aldi horretan bi enplegu plan sartzen direnez –2005-2007 urteetarako Nafarroako III. Enplegu Plana eta 2009-2012 urteetarako Nafarroako IV. Enplegu Plana–, 2007 eta 2008ko datuak emanen ditugu, alde batetik, eta 2009 eta 2010ekoak, bestetik. 2011ko datuak eskuratu ahal izanen dira urte horretako aurrekontu ekitaldia ixten denean.

III. Enplegu Planaren kasuan, datuek jasotzen dute planaren testuan proposatutako ekintzen betetzea, planaren azken atalean –“Aurrekontua”– agertzen den multzokatzearen arabera.

IV. Enplegu Planaren kasuan, datuek jasotzen dute planaren testuan proposatutako ekintzen betetzea, baina jarraituriko irizpidea ez da III. Enplegu Planean erabilitakoa; izan ere, III. plana osatzen zuten zenbait jarduera jada ez dira jasotzen IV. Planaren barruan, hala nola inbertsio-jardueretarako dirulaguntzak, kenkari fiskalak, mer-

kataritzaren eta turismoaren sektoreko ekintzak, IKTak sartzeara, I+G+Bren lehiakortasuna eta besteren bat.

Horregatik, uste dugu emandako zenbakiakin ezin dela urtearen araberako alderaketarik egin, horiek prestatzeko irizpide desberdinak erabili baitira.

III. ENPLEGU PLANAREN EKINTZAK	PLANA 2007	PLANA 2008
<b>NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA MODERNIZATZEA ETA BULTZATZEA ENPLEGUAREN BEHATOKIA</b>	<b>3.020.770</b>	<b>3.437.291</b>
<b>BERDINTASUNA, INTEGRAZIOA ETA KOHESIO SOZIALA</b>	<b>22.314.862</b>	<b>25.379.473</b>
<i>Aukera berdintasuna</i>	162.000	942.140
<i>Emakumezkoen enplegua sustatzea</i>	753.804	947.689
<i>Gazteen enplegua sustatzea</i>	1.116.726	1.066.895
<i>Kohesio sozialerako ekintzak</i>	6.480.030	6.813.690
<i>Ezgaituak</i>	12.392.849	14.145.970
<i>Nekazaritzako enplegua, etorkinak eta sasoikako langileak</i>	1.409.452	1.463.090
<b>ENPLEGUAREN SUSTAPENA</b>	<b>69.845.891</b>	<b>71.667.519</b>
<i>Enplegua sustatzea</i>	66.436.073	67.312.781
<i>Enplegu autonomorako laguntzak</i>	1.122.627	2.012.665
<i>Ekonomia soziala</i>	2.287.191	2.342.073
<b>PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA</b>	<b>17.980.104</b>	<b>19.278.874</b>
<i>Lanerako prestakuntzako programak</i>	10.503.106	11.639.742
<i>Etengabeko prestakuntza</i>	5.574.645	5.665.996
<i>Lan munduan sartzeko orientazioa</i>	<b>1.902.353</b>	1.973.137
<b>LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA INGURUMEN ARLOKO POLITIKAK</b>	<b>3.117.913</b>	<b>3.475.798</b>
<i>Lan arriskuen prebentzioa</i>	2.692.360	3.177.899
<i>Energia berriztagarriei buruzko prestakuntza</i>	425.553	297.900
<b>ENPRESEN LEHIAKORTASUNA ETA ENPLEGUAREN KALITATEA</b>	<b>13.398.993</b>	<b>14.937.421</b>
<b>Guztira, III. Enplegu Planaren ekintzak</b>	<b>129.678.533</b>	<b>138.176.377</b>

<b>IV. ENPLEGU PLANAREN EKINTZAK</b>	<b>2009ko plana</b>	<b>2010eko plana</b>
<b>I. ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA SUSTATZEA, ARDURAKIDETZATIK</b>	<b>10.363.067</b>	<b>12.426.896</b>
1.0. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA SUSTATZEA, ARDURAKIDETZATIK	1.169.364	1.135.064
1.2. NAFARROAKO ENPELGUAREN BEHATOKIA INDARTZEA. ZABALKUNDEA, KOORDINAZIOA ETA LIDERGOA	2.013.832	1.548.131
1.3. LAN ARLOKO ORIENTAZIOA, INFORMAZIOA ETA BITARTEKARITZA HOBETZEA	3.743.393	2.816.075
1.4. BERARIAZKO TALDEEKIKO ESKU HARTZE PROZESU INTEGRALAK	3.436.479	6.927.626
<b>II. ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEN</b>	<b>2.336.397</b>	<b>2.525.534</b>
2.1. ENPLEGUAREN EGONKORTASUNA	90.281	14.517
2.2. LAN OSASUNA	2.246.116	2.386.144
2.3. PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN SEKTOREKO ENPLEGUAREN KALITATEA	0	124.874
<b>III. LANBIDE KUALIFIKAZIOA</b>	<b>17.344.636</b>	<b>17.836.601</b>
3.1. PRESTAKUNTZAREN KUDEAKETA: INAFRE	13.849.300	15.326.753
3.2. PRESTAKUNTZA LAN MERKATUAREN BEHARRIZANETARA EGOKITZEA	1.009.058	596.544
3.3. GORABIDEAN DAUDEN SEKTOREAK ETA EZAGUTZAREN EKONOMIA	376.389	318.691
3.4. CENIFER ETA ITURRONDO	1.691.570	1.463.861
3.5. ARRISKUAN DAUDEN SEKTOREENTZAKO PLANAK	418.318	130.752
<b>IV. EKINTZAILAZ JARDUERA</b>	<b>4.262.137</b>	<b>3.535.302</b>
4.1. EKINTZAILAZAREN SUSTAPENA	150.000	127.500
4.2. AUTONOMOEI LAGUNTZEA	1.472.034	1.515.142
4.3. EKONOMIA SOZIALA ETA KOOPERATIBISMOA	2.640.103	1.892.660
<b>V. KOHESIOZKO LAN MERKATUA</b>	<b>25.203.096</b>	<b>33.332.854</b>
5.1. GAZTEAK	110.000	109.198
5.2. GENERO BERDINTASUNA	766.251	750.486
5.3. IMMIGRAZIOA NEKAZARITZAKO ENPLEGUA	1.858.331	1.895.685
5.4. EZGAITASUNA	11.311.271	19.277.874
5.5. PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGURAKO EREDU MISTOAK PRESTAKUNTZA DUALA	11.157.243	11.299.611
<b>VI. GIZARTEAN TXERTATURIKO ENPLEGU PLAN BAT</b>	<b>889.884</b>	<b>830.727</b>
<b>VII. ENPRESEN ERANTZUKIZUN SOZIALA ETA INGURUMENA</b>	<b>0</b>	<b>98.000</b>
<b>GUZTIRA, IV. ENPLEGU PLANAREN EKINTZAK</b>	<b>61.268.937</b>	<b>71.431.397</b>

2.- Zenbat pertsona zegoen langabezian 2007ko urtarrilean, eta zenbat pertsona dago langabezian Nafarroako Gobernuak galdera hau jaso duen egunean?

Langabeziaren datuak: ondoren agertzen dira Nafarroako Foru Komunitatean erregistraturiko langabeziari buruzko estatistika-datuak, 2007/01/31koak (2007ko urtarrila) eta 2011/08/31koak (2011ko abuztua).

**RESUMEN DATOS ESTADISTICOS DE LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA ENERO 2007**

	ALSASUA	AOIZ	ESTELLA	LODOSA	PAMPLONA			SANTESTEB	TAFALLA	TUDELA	T. NAVARRA
TOTAL CONTRATOS C.T. NAVARRA	432	351	1.357	2.376	12.726			510	1.426	2.844	<b>22.022</b>
TOTAL INDEFINIDOS C.T. NAVARRA	81	53	117	243	2.092			87	160	524	<b>3.357</b>
	ALSASUA	AOIZ	ESTELLA	LODOSA	ENSANCHE	YAMAGUCHI	ROCHAPEA	SANTESTEB	TAFALLA	TUDELA	T. NAVARRA
HOMBRES MENORES DE 25 AÑOS	33	28	70	50	288	207	270	43	116	169	<b>1.274</b>
MUJERES MENORES DE 25 AÑOS	34	29	80	51	243	170	252	33	89	195	<b>1.176</b>
HOMBRES MAYORES DE 25 AÑOS	139	187	430	250	1.739	1.184	1.633	238	427	1.104	<b>7.331</b>
MUJERES MAYORES DE 25 AÑOS	333	401	769	362	3.054	2.099	2.634	395	772	1.909	<b>12.728</b>
AGRICULTURA	15	22	40	33	32	30	31	8	69	138	<b>418</b>
INDUSTRIA	171	169	315	314	578	728	742	203	359	922	<b>4.501</b>
CONSTRUCCION	21	57	184	72	422	289	454	56	173	435	<b>2.163</b>
SERVICIOS	281	374	752	270	4.137	2.373	3.360	421	723	1.754	<b>14.445</b>
SIN EMPLEO ANTERIOR	51	23	58	24	155	240	202	21	80	128	<b>982</b>
<b>TOTAL</b>	<b>539</b>	<b>645</b>	<b>1.349</b>	<b>713</b>	<b>5.324</b>	<b>3.660</b>	<b>4.789</b>	<b>709</b>	<b>1.404</b>	<b>3.377</b>	<b>22.509</b>

**RESUMEN DATOS ESTADISTICOS DE LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA AGOSTO 2011**

	ALSASUA	AOIZ	ESTELLA	LODOSA	PAMPLONA			SANTESTEB	TAFALLA	TUDELA	T. NAVARRA
TOTAL CONTRATOS C.T. NAVARRA	334	530	1.174	1.406	11.100			440	1.361	2.972	<b>19.317</b>
TOTAL INDEFINIDOS C.T. NAVARRA	18	36	58	29	644			37	47	137	<b>1.006</b>
	ALSASUA	AOIZ	ESTELLA	LODOSA	ENSANCHE	YAMAGUCHI	ROCHAPEA	SANTESTEB	TAFALLA	TUDELA	T. NAVARRA
HOMBRES MENORES DE 25 AÑOS	81	138	130	84	581	358	469	83	162	403	<b>2.489</b>
MUJERES MENORES DE 25 AÑOS	91	39	101	68	463	301	433	66	163	346	<b>2.071</b>
HOMBRES MAYORES DE 25 AÑOS	570	293	978	621	3.734	2.267	3.568	438	1.058	3.374	<b>16.901</b>
MUJERES MAYORES DE 25 AÑOS	639	436	1.105	577	4.884	3.057	4.194	508	1.250	3.296	<b>19.946</b>
AGRICULTURA	26	28	124	163	133	85	138	26	201	587	<b>1.511</b>
INDUSTRIA	526	232	489	407	1.081	767	1.255	184	625	1.678	<b>7.244</b>
CONSTRUCCION	104	96	352	161	1.080	627	1.195	135	308	1.336	<b>5.394</b>
SERVICIOS	662	491	1.156	530	6.820	4.009	5.596	679	1.308	3.312	<b>24.563</b>
SIN EMPLEO ANTERIOR	63	59	193	89	548	495	480	71	191	506	<b>2.695</b>
<b>TOTAL</b>	<b>1.381</b>	<b>906</b>	<b>2.314</b>	<b>1.350</b>	<b>9.662</b>	<b>5.983</b>	<b>8.664</b>	<b>1.095</b>	<b>2.633</b>	<b>7.419</b>	<b>41.407</b>

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Iberdrolaren akzioak saltzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iberdrolaren akzioak saltzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iberdrolaren akzioei buruz (8-11-/PES-00181). Hona hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du berehala ezer egiteko asmorik Foru Administrazioak gaur jabetzan dituen Iberdrolaren akzioen salmenta dela eta? Ez.

2.- Zein da, galdera hau jaso den egunean, akzio horien balioa? 2011ko irailaren 15ean, mer-

katuak ixterakoan, Sodenak jabetzan dituen Iberdrolaren 28.849.574 akzioek 145.084.507,65 euro balio zuten; bakoitzak 5,029 euro.

3.- Galdera idatzi hau egin den egunean enpresei, autonomoei eta pertsona fisikoei zor zaizkien ordainketak eta itzulketak atxikiko ez balira eta ohi ez bezala aurreratzera behartu ezean, zenbat aurreztuko lukete interesetan? Galderarekin esan nahi bada "Iberdrolaren akzioak salduko balira," ezer ez; izan ere, beharizan horiei ez zaie Sodenatik erantzuten, Nafarroako aurrekontu orokorretatik baizik.

Sodenaren desinbertsioak erabiltzen dira inbertsio berriak finantzatzeko, eta, kasu honetan, akzio horiekin bermatzen diren kreditu erabiliak kitatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## Galdera, Audenasari 2011n ordainduko zaion diru kopuruari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Audenasari 2011n ordainduko zaion diru kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du, idatziz erantzutetako, Audenasari buruz (PES-000182). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Aurreikuspenen arabera, 2011n 14.629.261 euro ordainduko zaizkio Audenasari.

Une honetan ez da inolako ekintzarik aurreikusen A-15 autobidearen jabetza osoa berreskuratzeke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## Galdera, Moderna Planarekin lotuta eginiko gastuei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Moderna Planarekin lotuta eginiko gastuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutetako, Moderna Planarekin lotuta eginiko gastuei buruz (PES-00177). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna: 2010ean, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura aitortutako betebeharrak 994.507,51 euro egin zuten.

2011n, irailaren 30era arte Nafarroako aurrekontu orokorren kargura aitortutako betebeharrak 402.684,68 euro egin dute. 2011 amaitu arte eta 2012rako, finantzatu beharreko zenbatekoa, kasu bada, ezarriko da Moderna Fundazioak onesten duen Kudeaketa Planaren arabera.

2013 eta 2014rako, Moderna Planaren aurrekontuaren bilakaera izanen da haren gobernu-organoak ezartzen duen plangintzaren arabera, ekonomia-, gizarte- eta enpresa-eragileek aurkeztzen dituzten ekimen eta proiektuei jarraikiz, eta Fundazioak kasu bakoitzean mobiliza ditzakeen finantzaketa publiko nahiz pribaturako aukerak kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

